

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HARRI NATURALA JARTZEKO GIZA BALIABIDEEN ANTOLAMENDUA ETA GAINBEGIRAKETA	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF0750		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harri naturala		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Harri naturaleko elementuak jartzeko lanen programazioa eta gainbegiraketa	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Harri naturala jartzeko baliabide materialen antolamendua eta gainbegiraketa	Iraupena	50
	Harri naturala jartzeko lanen kalitate-kontrola		40

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0868_3 HARRI NATURALEKO ELEMENTUEN JARTZE-LANAK PROGRAMATZEA ETA GAINBEGIRATZEA gaitasun-ataleko LB4 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Giza baliabideen antolamendua aztertzea eta garatzea egin beharreko lanen arabera, ezarritako programazioari jarraikiz eta segurtasuneko eta ingurumenaren errespetuari buruzko eskakizunak aintzat hartuta.

E11.1 Egin beharreko lanak identifikatzea eta bakoitzaren behar den kalifikazioa edo prestakuntza kontuan izatea.

E11.2 Profesional bat baino gehiago eskatzen duten eta/edo azpikontratazioaren premia duten jarduerak aztertzea, horien proposamen justifikatua egitearren.

E11.3 Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-baldintzei buruzko araudia interpretatzea, betetzen dela bermatzeko.

E11.4 Aginte-kate posible bat eta erantzukizunak justifikatzea eta bakoitzari dagozkion eskumenak esleitzea.

E11.5 Laneko aginduak definitzeko eta transmititzeko irizpideak identifikatzea eta akats ohikoenak adieraztea.

E11.6 Proposatutako lan-partearen eredia ebaluatzea eta izan ditzakeen akatsak detektatzea.

E11.7 Plangintza orokorra giza baliabideen premiekin ebaluatzea eta beharrezkoak diren aldaketak proposatzea.

Edukiak:

1. Giza baliabideak. Postuak, funtzioak eta lan-harremanak:

- Lanpostuak. Postu bakoitzaren funtzioak eta eskumenak.
- Beste lanbide batzuekiko koordinazioa.
- Aginte-hierarkia. Erantzukizunak.
- Laneko legedia.

2. Giza baliabideen plangintza, kontrola eta gainbegiraketa.

- Lanen programazioa: giza baliabideen antolamendua. Kontrola. Errendimenduen azterketa. Kronogramak.
- Azpikontratazioa.
- Dokumentu teknikoak. Laneko aginduak. Lan-partreak.
- Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana. Larrialdi- eta ebakuazio-plana. Lehen laguntzak.
- Norbera babesteko ekipamenduak: Kaskoak, eskularruak, aurikularrak, segurtasun-botak, gerruntzeak, betaurrekoak, mantalak.
- Segurtasun-neurriak makineria eta ekipamenduak maneiatzean.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.

- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa.